

PIO GAZTE BIZKOR BEREKOI HURA (Aquel niño que nunca fue)

Patziku Perurena

Orain, badakizu, Pio zaharraren biografia lehiaketan gaude. Zeinek hobeak asmatu. Zeinek uso berdeagoak atera haren otarretik. Nik Eduardorena leitu nuen. Baroja kontuan, inflesio puntua aurreneko aldiz nabarmen markatu zuena. Beste inork sekulan aterako ez lioken soinu eder batean. Chamfortenean leitu nuen maxima hura etortzen zait beti burura, erdaraz:

«Nadie merece ser alabado por su bondad, si no tiene la fuerza de ser malo».

Hementxe hasten da dena. Troiaz eta Helenaz gerozko gerra gurea. Hementxe bukatzen dena.

Geroztik Miguel Sanchez Ostizen biografia atera da. Askoz xeheroago, onberago, denekin ongi gelditu nahi asperregian. Gure gogora orduko, dena zalakatzen eta irensten baitugu nolana, auzmartzeko haginik izan ezean. Honatx Sanchez Ostiz beraren hitzak:

«No tenemos ni la más remota idea de cómo somos, no nos inquieta lo más mínimo saber quién es el otro. Con un prejuicio, con una sospecha, con nuestra mala intención nos vale. Acercarse, escuchar. Eso no. Nos ofende que el otro sea distinto, no mejor ni peor, sino distinto. Su diferencia es lo que nos disturba, su posible excelencia, también. La excelencia ajena denuncia nuestras vergüenzas».

Ez, bestea «*mejor o peor*» izateak ez. Batez ere «*mejor*» izateak. Horrek gaizkitzen gaitu. Ez, bestea «*posible excelencia*» izateak ez, bertako eta begien bistako «*excelencia cierta*» izateak pozoitzen digu barren guzia. Eta horixe da nik Eduardo Gil Beraren itzal freskoaren inguruan sumatzen dudana: betiko bufada ustel itogarria. Bai baitakit ongi, Odisearen euskal itzulpen hura argitara nahi izan ez zutenak ez direla batere lotsagorrituko «*La sentencia de las armas*» leitzean.

Ez. Kontua da, nere oraingo adintsuan, «*Juventud, Egotria*» izeneko autobiografia koxkor gisako bat idatzi zuela Píok. Leitua neukan nik aspaldikotik. Pasarte batzuk akotatuak ere bai. Haietxek aprobetxatuko dizkizut, Pio sonatuaz neure irudipen batzuk egiteko. Ez natorkizu, beraz, Pioren enegarren biografia asmatzera. Aski eta sobera izanen dizut umetako Pio haren pasadizo batzuk aztertzearekin, asmatzearekin. Alde aldera, haietan sumatu bainuen gainerako Pio guzia ere.

IZAN GABE, HAUR?

Bai, denak gara haur. Baina betirako. Hantxe zegoen gure eder pizar guzia. Konbentzio ergelotan galdu aurreko baso ilun hartantxe. Ez dakit zergatik despreziatu genuen. Eta nola iritsi orain hara?... Ez dugu zertan iritsi. Izatea da ditxa. Eta, Piok apenas ukan zuen haurtzarorik. Horra bere biziko hutsik larriena. Behin, badakit, gauza haundi bezala esan zuela, gizonak, hamalau urtetarako, mundu honetan bizi behartakoak bizixeak izaten dituela. Baina, gezurra hura ere. Bere haurtzarorik eza kitzeko asmatutako haundikeria:

«¡Qué exageración! ¡Sí, pero qué ejemplo también! Los niños brutos y visionarios pueden dar raras sorpresas. Baroja fue muy sensible. También en la primera adolescencia y en la primera juventud padeció a consecuencia de la ordinariéz y los malos modos de profesores y superiores. Es decir que a la grosería del profesor locoide puede constestar la del estudiante montaraz».

Julio Carok dio hori, beti haur izandako Pioren iloba pajaritadun sonatuak, «*Juventud, Egotria*» haren sarreran, 1977ko edizioan. Eta egia da. Esaldi horretxetan dago Pio guzia. Ongi erreparatu behar. Bi gezur edertu nabari baitira hor: «*niño bruto*» eta «*estudiante montaraz*». Pio izeneko haur mellenga haren guziz kontrako irudia sortu eta defenditu nahi garbian.

Ez. Ezin dut ikusi Piotto muttiko nerea, ikasle bihurri zakar. Leku ederean! Euli baten hankasoinuekin ikaratua, ohapean gordetzen baitzen daldalka, gure ume zangar usteko hura. Arrazoi zuen Sanchez Ostiz jaunak. «*No existe tal lugar*». Ez behintzat, haurtzarorik ez bada. Baina, nik bestela esanen dut gaur, heldutasunaz eta, inoiz baino ergelago hitzegiten den garai honetan: «*No existe tal edad*». Hola dago hobeki. «*Porque todo estaba en la infancia*». Egia-go baita adinarena, lekuarena baino. Bakoitza bere adin sikologikoak moldatzen baitu, edo hondatzen. Eta perukurrilada bat dirudi, baina ez da hala.

Badituz nik, Pioren gaitz klase asko, baina, haurtzaroa atzekoz aurrera bizi izan ote dugun daukat. Edade sikologiko guziz alderantzizkoa dugula. Esate bateko, ni ez nintzake nobelista izanen, hala nahi izan, eta zazpi ahaleginak eginda ere. Eta hortxe ikusten da bakoitzaren adina. Ez. Ez da adinik. Adin klaseak baizik.

NOLA HEZI, HALA BIZI:

Hezi, noski, hazia hezitzen da beti. Pio ordea, hazia aparte, arrunt xuri hezia izan zela uste dut, emeei, guriegi, egungo ume guzia bezalatsu, niri pena emateko moduan, hemendik hoge berrogei urtera, zertsu izan litezken etortzen baitzait burura Pioz oroitzean, eta ezin eramane, nerea aurreneko dela, familia endekatu parasito-sortzaile berriok.

Bai, Pio hain da gaurkoa, hain da guri hezia, non umetako oroipen bizi-rik ere ez duen kasik. Eta dituen pizarrak geroztik erdiasmatuak, eta donostiar

estilora apainduak. Aurren aurreneko oroipenak, kaskariñen hiria karlistek bombaz eraso zutenekoak omen ditu. Ikusi-makusi.

Hilak ikusten, bizi gabe:

...«tengo una idea confusa de unos soldados en camillas, de haber mirado por encima de una tapia un cementerio pequeño, próximo al pueblo, en donde había muertos sin enterrar».

Baita zera ere!... Ezin egin dut irudipenik, Pio muttiko nerearenik, bakar bakarrik kanposantuko pareta gainera igo eta hildakoei begira, ikara bakar eder batek indartua, gerra bizi bizian ari duela. Ezta pentsatu ere!... Nahi bai, giza-joak, handik hogeit eta hamabost urtera, bizi gabekoa bizi izan balu bezala saldu. Ez niri. Hor konpon zuri.

Katu fantastikoa:

...«En la parte alta del Castillo de la Mota, de San Sebastian, había una campana con un vigía. Cuando éste veía el fogonazo del cañon carlista, tocaba la campana, y la gente del pueblo tenía tiempo para meterse en los portales y sótanos.

Monseñor, el gato rubio, era inteligente. Había notado la relación entre la campana y el cañonazo, y cuando sonaba la primera, entraba en casa y, a veces, se metía debajo de la cama. Algunos amigos de mi padre vinieron al sótano, donde vivíamos, a ver las maniobras del gato».

Nere zentzuak arrunt galdu ez badira, hor ez da zinez bizitakoren arrastorik ere nabari. Umetan bizi eztakoak kitatzeko, berrogeitan asmatutako kaxkarinkeria batzuk ez badira. Zer izan litezke besterik, azken karlistada bete betean ari duela, katuaren jakinduria finaz liluraturik dabiltzan barojero horiek?... Eta ez pentsa, baditu gehiago, eta apainagoak ere ez gutxi.

Bi ero, asmatuak gero:

...«Después de la guerra, mis hermanos y yo íbamos con mi madre los domingos a pasear al Castillo de la Mota, un paseo bonito de verdad (sic). También solíamos encontrarnos con un loco.

Cuando veía a los chicos el loco, se ponía muy alegre; en cambio, si se le acercaba alguna señora, huía, se arrimaba a una pared y comenzaba a pegar patadas y a decir: ¡El perro ciego! ¡El perro ciego!»...

Ni sikologo klasikoa naiz. Baserritarra. Baina, sikiatra berrien esku xurietan uzten dut Pio umeak bere orde sortutako ero honen gaitza. Batez ere mutikozkorrak ikustean poztu, baina, emakumeak ikustean paretari ostikoka «zakur itsua! zakur itsua!» oihuka hasteko modu hori. Zer ote da ba, sexua, «zakur itsua» ez bada?... Oroit Helenaren aspaldiko «zakur begiratu» hartaz. Gili leitu diot hura ere, beste inori baino hobeki.

Bai. Maite ditut nik eroak, maite, baita asmatuak ere. Hona beste bat:

...«En un caserío, adonde solíamos ir alguna vez en Loyola, recuerdo haber visto una señorita loca, que hacia gestos y miraba a un pozo muy profundo, en donde se veía muy bajo una media luna de agua muy negra»...

Ze modu gaizto da hori, bizitako gertakari morbosoa bat kontatzeko? Bai, bistan da... Bi ero nabarmen apainduok, bukaera dizute, halere, biribilena: «*estos dos locos, me perturbaban algo en la infancia*». Nik alderantziz esanen nuke, biharko nere sikiatra berriari beste argimuttur bat azaltze aldera: buru-hauste haundiak eman zizkiola ero pare honek Piori bizi guzian, hainbestekoak non inoiz bizi gabeak ere asmatu behar izan dituen.

GIZON EZIN IZANA:

Bai. Pio gizonburuak jaio zen. Aitaren itzal zakarrik ezak, amakeriak, emekeriak eta gainerako balaku guziek gizondua. Eta handik aurrera, beti ume, gizajoa. Gizontasun ausart mirestu baten eskeleto bila beti. Sekulan inon haragitu gabeko hezurdura huts.

Bai. Bere obra guzian, bere bizi guzian, itzal batek bezala segitu zion «*ume izangabe*» horrek. Eta bere neke guzia, bere meritu guzia, bere fama guzia, «*ume izangabe*» horri zor dio Pio. Bere burua nola «*gizondu*» ezin asmatuz hil baitzen gizajoa, eta ilobek ere, igoaltsuak izaki, horretan lagundu zioten fuerte. Idazleen sektan asko baitira sehaskatik hilobirako zubi fantastikoa besterik egin ez dutenak. Eta denetan okerrana, deus tajuzkorik bizi izan ez dela disimulatzen hastea:

«Cuando habla uno de sí mismo, finge también... el disimulo es imposible, porque allí donde menos lo ha querido, el hombre que escribe, se ha revelado. Cuando el hombre se mira mucho a sí mismo, llega a no saber cuál es su cara y cual su careta».

Bai, gorputzeko zulo guzietatik sartzen zaizu mina. Zarenak eta batez ere ez zarenak, den denak mintzen zaitu. Eta inork ezin ikusi inoren minik. Eta dena pilatu egiten. Halako batean dena haizeak eramaten dizun arte. Horixe da gure harrokeria guzia, inork ikusi nahi ez duen haize horixe. Hala eta guzi, inor ez bezalako izan nahi izaten du batek. Nor bera den ez bezalako, alegia. Eta Barojak asko hitzegin zuen bere buruaz. Tarteka ongi bada ere, hitzegitea baita kontua.

BIZIA MOTZ, KONTUA LUZE:

Ai, oi, ai, eta miletan ai!... Nere Pio bihotzekoa. Inork ez zizkion bi muturreko on sekulan eman. Inork ez zuen buztanetik hartuta lurrean arrastaka erabili. Inork ez zuen sekulan, igela larrutzen den gisan, haren bildurrik erantzi. Ez. Don Tirsok ere beste bildur-jaka beltz bat jantzi zion, lehengo guzien gainetik:

«De pronto salió una sombra negra, por detrás de un confesionario, se abalanzó sobre mí y me agarró con las manos del cuello hasta estrujarme. Yo quedé paralizado de espanto

–¿Cómo te llamas? –me dijo zarandeándome.

Yo no podía contestar del terror.»

Edozein mutikozkorrentzat gauzarik arruntena zena, horra nolako krudeleria bihotz nereko Piottorendako. Baina ez. Oraindik ere sakonagoa nahi dizu tragedia. Bere antiklerikalismoa ere, –oi ze desondra, arima galtzeko ere!– haurtzaro izangabe haren aitzaki egin nahi dizu:

«Aquella escena fue para mí, de chico, uno de los motivos de mi anticlericalismo. Recuerdo a don Tirso Larequi con odio, y si viviera, no tendría inconveniente en ir por las noches oscuras al tejado de su casa y gritarle por la chimenea con voz cavernosa: Don Tirso, eres una mala bestia.

Horra hor berrogei urteko gizona, sekulan egin gabeko umekeria nola egingen luken amesten oraindik. Egia da, apaizak gogor tratatzen gintuela. Apaizak, maisuak, gurasoak, lagunak... Eta nork ez?... Eta eskerrak nola edo hala zaildu gintuzten! Gaurko gizartean sumatzen dudak hutsik haundiena:

«Ese canonigo sanguineo, gordo y fiero, que se lanza a acogotar a un chico de nueve años, es para mí el símbolo de la religión católica»

Egia haundia. Baina, ispiritu santua, jainkoa eta gainerako bedeikazio guziak aparte, gauzarik ederrena, huraxe zuen erlijioak neretzako: on xuritik gaitz beltzerako, dotrina birjinatik ekintza latzerako, kontradizio ernegarri taigabeko hura, estzeptikarako eskola bikoitz zentzagarri eta indargarri hura. Zoaz orain!...

Ez, euskal usuarioan esan ohi den bezala, ez goaz gero eta katolikoago, gero eta mellengago baizik. Nik ez daukat behintzat gogoan, dotrineko konturik inoiz zinezkotzat harturik. Baina, bederatzi urteko semeari aditzen nion lehengoan: *«Jesus benetakoa zela, nahiz zeruan ez bizi»*. Eta semeak komunioa egin zuen egun berean, aldaretik erristan sumatzen nuen, berriz, abadea: elizara, sinestera etortzeko, ez itxurak egitera. Bi detailtxo horiek aski ditut nik, berrogei urtetan gizaera nola ergeldu den ikusteko:

«Mi periodo de vida preliteraria ha tenido tres épocas: ocho años de estudiante, dos de médico de pueblo y seis de panadero».

Gero hogeitau eta hamar urte aldera, idazteari ekin omen zion:

«Era lo mejor que podía haber hecho. cualquier otra cosa me hubiera dado más molestias y menos alegrías».

Nik ere beste hainbeste esan nezake. Baina, ikus ditzagun gure Pio bihotzekoaren hiru bizialdi garratzak:

Valentzian, karrera amaieran: «*Como no conocía a nadie, no salía de casa, ni iba a ninguna parte; me pasaba los días tendido en el terrado y leyendo*». Horra gaztetasun beteko kreatura. Juventzio zangar hura.

Zestoan mediku: «*Como médico no hice ningún disparate. Tenía ya mucha prudencia*». Soberaxko. Berak aitortzen baitu beste nonbaitean «*muchos al miedo llaman prudencia*». Zaldia ere ba omen zuen, inoiz hankartean hartzera ausartu ez zena. Eta gero, Dolores serora, ama batek bezala mimatzen omen zuena. Baina disparaterik ez. Esate bateko, herriko medikuak ohi zuenez, emazteki ederren bati bere zauririk haundiena ongi sendatuta utzi edo, zer Jesus dakit ba nik. Hala eta guzi, Horaziori ere goitik begiratu nahian, «*Epicuri de grege porcum*» deituko dio bere buruari.

Madriden okin: Anaia Ricardok bi sosen fundamenturik ez eta, Piozker bait gehiago bazela uste. Alferrik, ordea: «*donde no hay harina todo es mohina*» esanda aldegin omen zuen, dena bertan utzita. Beharko, Barojatarren martxa exkaxa sumatzean, etxearen jabeak, Romanonesko konteak, haizera jostera bidali baitzitu. Eta gero, jakina, irinagatik esandakoak, bere-bere aterata Piori, bere zainetako odola irin izan balu bezalaxe.

GAZTE IHESLARI:

...«*en mis libros... he andado por la cornisa de un tejado, a riesgo de caerme, y otras, me he metido por caminos llenos de zarzas, en donde, me he arañado la piel. Esto lo he hecho casi siempre, con torpeza, a veces con cierta gracia. Todas mis obras son de juventud, quizá sin vigor, sin fuerza, pero obras de juventud*».

Bizitzan inoiz gazte izan ez dena, sekulan deus arriskatu ez duena, inoiz larrutu ez dena,... Horra hor arantza tartean harramazkatua, eta amildegian erortzeko arrisku bizian, gizajoa, ausart eta kementsu, bere buruari begira, konbentzio guzien ispiluan oilartua:

«*Hay en mi alma, entre zarzales y malezas, una pequeña fuente de Juvencio. Diréis que el agua es amarga y salitrosa, que no es limpia y cristalina. Cierto. Pero corre, salta, tiene rumores y espumas. Eso me basta. No la quiero conservar; que corra, que se pierda. Siempre he tenido entusiasmo por lo que huye*».

Egia. Honelatsu litzake euskaraz, Pioren aitorten zintzo horren zinezko itzulpena: «*Bada nire ariman, mainontzikeria ugariz xurututako iturri bat haurtzarokoa. Sumatuko duzue, noski, epel eta exkaxa dela ur xirripa, ez dela aski zakarra eta sueltoa. Egia. Baina, badoa norabait nere ur xuria, uxkur eta ager gordeka, inork ikusteko bildurrez bezala. Izu horrek hondatu nau. Pilatu egin zait, ikaraz ikara; urratu eta uxatu behar nituen bildur ttar guziak pilatu zaitkit, bai, minez min. Horregatik ez naiz inora ere ihes egiteko gauza. Horregatik nauzu honen sentibera*».

SENSUAL EZ SEXUALA:

Ez dakit nola bereizten diren gauzok. Motzean esan: sentsualitatea sexualiterako atea baino ez da neretzako. Gero eta pelikula haundiagoak ikusten ditu, ordea, jendeak. Sexu kontuan, batik bat. Kasi kasik elizak zorrotzegi estaltzen zuen hark askoz ere sanoago baitzirudien, gaurko prentsak mesuragabe sofistikatorik erakusten duenak baino. Badakigu gaitza, alferreko deseoak sortzea dela. Baina betiere, osasuna, deseoak betetzeak ematen duela ahaztu gabe. Aditzen Pio?...

«Si yo hubiera podido seguir mis instintos libremente en esa edad trascendental de los quince a los veinticinco años, hubiera sido un hombre tranquilo, quizá un poco sensual, quizá un poco cínico, pero seguramente no un hombre rabioso. La moral de nuestra sociedad me ha perturbado y desequilibrado».

Berriz ere bere ahulkeria, bere ezina, besteren bizkar. Baina, besteri kulpa botatzen dionak, deus ez daki oraindik munduko bizimoduaz. Bere buruari botatzen dionak, oraindik zerbait konprenitu nahi lukeela dirudi, gizajo optimista errukarriak. Baina kulparik inork ez duela ikusteko haina nozitu duena, beste kasta batekoa izan ohi da:

«En esta cuestion sexual yo no veo más que el individuo, el individuo que queda perturbado por la moral sexual: primero, la idea del pecado; después la idea del honor; luego el temor a la sífilis, y todo esto se baraja con ficciones místicas y literarias».

Imajinatzen al duzue inprentako hutsegite eder bat: *«y todo esto se baraja con ficciones místicas y literarias»*. Beldurrak eta ezinak elkarren gainean pilatu ahalean. Egunen batean etorriko omen da higiene sexuala. Etorkizuneko Pio-Pioak, bene-benetakoak, alegia, libre izan daitezten, paperean idatzi bezalaxe. Baina orduan ere, oilandak ez dira oilar izanen:

«-Casi me hubiera alegrado ser impotente

-¡Qué barbaridad!

-Para mí, como para la mayoría de los que viven sin medios, el sexo no es más que una fuente de miserias, de venganzas y de pequeñas canalladas. Por eso digo que me hubiera alegrado de ser impotente...»

Zezena adarretatik, gizona ahotik. Hortxe dago Pioren sikologia guzia, inpotentzia orokor horretan. Eta ez naiz erdiko hankaz bakarrik ari, baizik eta horrek, gainerako *oreka* guzian eragiten duenaz, edo alderantziz, gainerako guziak horretan eragiten duenaz. Silverio Lanzak harrapatu zion, erdiz erdi, ustez gordean zeraman gaitza, nere Piotto bihotzekoari:

«-Amigo Baroja. A las mujeres y a las leyes, hay que violarlas.

Yo, ya cansado de oírle, le dije:

-Mire usted, don Juan, todo eso es literatura manida. Ni usted ni yo podemos violar las leyes y las mujeres a nuestro capricho. Eso se que para los Cesar,

Napoleón, Borgia y compañía. Usted, como yo, tiembla si tiene que transgredir no una ley, sino las ordenanzas municipales, y respecto a las mujeres, tomaremos algo de ellas si ellas nos quieren dar algo, que me temo que no nos darán gran cosa, y eso que somos dos de los cerebros más privilegiados de Europa».

Egia maite bai, baina, bere larruan ez aditu nahi. Hortxe hartzen baitzuen minik haundiena. Bere biziko ezin guzien ardatza. Inoiz oliotu gabea. Ibili gabean zeharo herdoiak hartua. Nola ez ba zitaldu gizona, eta betirako barren-gaiztotu!... Esana lekuko: larrua natural samar kuratzea, Cesar, Napoleon edo Borgia izatea baitzen harentzako. Hortik atera!... Eta ez bazara deus ateratzeko kapaz, hona beste argimuttur bat, Cioranek emana ditxosozko «*Ese Maldito Yo*» hartan, Pio eta egingo gizaera fina larrutuz:

«Disertar demasiado sobre la sexualidad equivale a sabotearla. El erotismo, plaga de las sociedades crepusculares, es un atentado contra el instinto, es la impotencia organizada. No se reflexiona sin riesgo sobre las proezas que no necesitan la mínima reflexión».

NI ON IZATEKO, GIZARTEA GAIZTO:

Eta klaro, horren sentibera denarentzako, nola izan gizartea on? Lehen-
txeago esan dizu: «*la moral de nuestra sociedad me ha perturbado y desequilibrado*». Edozein gauza, geure oinazpiak ikustera makurtu ezik. Askoz neke-
zago dirudi etengabe saldu nahi dugun kareta pintatzen segitu beharrak. Bai,
libertsio nekosoak eta antzuak maite ditugu, ageri denez. Behar den eta ez den
guzia, baten batek, oharkabean liluratu eta, inor ez bezalakotzat har nazan.
Bai. Erantzi, berriz jantzi, berriz atzera erdierantzi, gerrialdea arindu, eta zil-
borra ongi erakutsi. Inork ez dezala uste izan, munduko ardatza NI ez naizela.
Nere zilborra duzu mundua, bai. Beste guzia kontu hutsa:

*«La sociedad es mala para el hombre que tiene una sensibilidad excesiva...
Por eso la odio cordialmente y le devuelvo en cuanto puedo todo el veneno de
que dispongo. Ahora, que a veces me gusta dar a ese veneno una envoltura ar-
tística...*

*Un negro puede ir desnudo por la selva en donde cada gota de agua esté
impregnada de millones de gérmenes palúdicos, en donde haya insectos cuya
picadura levante abscesos y en donde la temperatura se eleve a más de cincuen-
ta grados a la sombra. Pero un europeo, acostumbrado a la vida protegida de la
cuidad, ante una naturaleza como la tropical, sin medios de defensa, morirá.*

*El hombre debe tener la sensibilidad que necesita para su época y para su
ambiente; si tiene menos, vivirá como un menor de edad; si tiene la necesaria,
vivirá como un hombre adulto; si tiene más, será un enfermo».*

Baina Piok, umetako Donostia, gaztaroko Iruñea, eta gainera gaineko
Madrilak, den denak, Afrikako desertu ezinbizi izan zituen, gizajoak. Ur tan-
ta europar bakoitzean ikusten baitzuen milaka partikula pozoidun eta ikaraga-
rri, bildurti txatxu alenak. Halare, beregandik uxatu egin nahi dizu «*menor de*

edad» delako kontu mingarria. Azkoz nahiago dizu «*enfermo*» izan. Bai kaprixtosa dela, *Ohore* izeneko dama gurea!...

ARIMA AZKAR ARTXIEUROPAR

Inoiz izan gabeko «*umebildur*» horren fruitu dizu kristau mellenga eta arraza semitiko guzien aurkako jarrera zuria ere. Honatx nola ari zaizun Nietzsche hitzik hitz irentsi nahian:

«No cabe duda que las razas del Mediodía de Europa son las más vivaces, las más enérgicas, las más duras del mundo. De ellas han salido todos los grandes conquistadores. El cristianismo al tener que dominarlas, les inoculó su virus semítico, pero este virus no sólo no las debilitó, sino que las hizo más fuertes... Hay todavía mucho fuego en el corazón de estos teofagos».

Horrek esan nahi du, Pio ere, artxieuroparra izanik, munduko gizonik biziena, zangarrena eta gogorrena zela, alegia. Eta kristau eta semita jende guzia, haren ausardi sekulakora iristen ez den erdipurdiko jendajetzat hartu beharko genukeela. Izanez ere «*estoy constituido por un fondo insobornable*» baitio harrosko bere buruaz, Ortega y Gasseten itzal haundia lagun duela. Eta atzanean biak jainkoaren babes bila heriotzakoan.

ANARKISTA IZAN, BOHEMIA GUREAN:

Anarkista izan zelako lelo ergelak ere, disfraz berbera dizu, baten batek ederki bota zion bezala:

«Salaverria supone que sigo en la postura anarquizante y negativa para conservar la clientela literaria. Salaverria supone que yo tengo un amor oculto por la sociedad brillante, por los generales, por los magistrados, por los políticos, por los indios, por los argentinos que dicen: "Qué esperanza"»

Eta zenbat Pio nere inguruan. Nere inguru iraultzale, euskatzale, aber-tzale, jeltzale eta funtzionari negartzale ustel nazkaemangarrian:

«Nunca he sido practicante de ese mito ridículo que se llama la bohemia. Vivir alegre y desordenadamente, en cualquier lugar, sin pensar en el mañana, es tan ilusorio que no cabe más. En París, Londres... esta bohemia es falsa, y en España más, donde la vida es tan dura».

Behin, astelehun gorrian, afari legea egin Danbolinen, eta bohemio itxuran atera ginen, maria errez, tabernaz taberna Leitzan. Lagun arteko fartsa koxkor bat, geron jazkera apropos zarpaildu, kitarra, kanta, eskerako kapela eta guzi... Txoroaldiak hirulau ordu iraun zigun, eta goizaldera, sekula baino okerrago itzuli etxera.

Halare, jende asko sumatzen dut oraindik inguruan, mito ergel honen miresle. Gaixoak, ez baitakite, dena dela Bohemia anarko hemen. Hegemonia bera dela buhameriarik gogaikarriena.

«No sólo es falsa la bohemia, sino que es vil. Es como una pequeña secta cristiana de impresentables engreídos... Para estas gentes sólo existe lo práctico».

Inork jakinen balu bezala praktikoa zer den! Inork izanen balu bezala botika majikorik, bi oinen gainean bere buruari ezin eutsi dion sikopata errukarri honentzako. Inorantziak eta inpotentziak dakarren inbidia, ezineramana, eta neke antzua, hori bai dela praktikoa beti.

POLITIKA POLITIKAN EZ

Liberalismoak desegiten duen guzia bere guzizko omen dizu Piok: gibelasmo erlijiosoak, harrokeria nobiliarioak, galoï militarrek... Ez ordea liberalismoak eraiki dituen balio berri ergelok: sufragio unibertsala, demokrazia, parlamentarismoa. Barregarriak eta inolako eraginik gabekak iruditzen zaizkio. Fartsa hutsa esanen nuke nik, biontzako:

«En la democracia actual no hay más que dos sanciones: el voto y el aplauso... La democracia concluye en el histrionismo.... Las leyes son como telas de araña; que detienen a las moscas pequeñas y dejan pasar a los moscardones. Un hombre que se levanta a hablar ante una multitud, es necesariamente un histrion... Soy demasiado poco histrion para ser político».

Tiro galanta, ala jainkoa, azkeneko hori, nork bere buruari ematekoa. Hala eta guzi, nik gauza berbera igoyal eginen nizuke, patzada ederrean. Eta nork ez?...

...«la diferencia espiritual entre el obrero y el burgues no es muy grande; así se ve muchas veces el caso del obrero que salta a burgues y se desarrolla como la más completa flor del chanchullo, de la usura y de las malas artes».

Esan beharrik ere!... Itoa nago proletario usteko. Iraultzaile fantastikoz. Euskaldun jator mitikoz... Eta abar eta azkar... Beste asko, berriz, jeltume ustelon miresle. Eta elkarriz dioten gorrotoa!... Bai gizengarri dela eguneroko pentsu politikoa!... Eta gantza honen erro erroan, betiko oinazea, betiko sufrimentu inozoa, gure euskal izate guzieren hazi. Ze pena!...

Burgesia kasik ez da nabaritu ere egiten. Hain da globala!... Beno, gero gazteak gelditzen dira, bohemio eta anarko pinta duten jeltume robotiko euskal kankailuok... Eta animo: gehienak sozialista eta iraultzaile baitatoz... Euskal kazetariak hala omen diote. Baina, lehenagotik katalanen batek esana beti:

«Pi y Margall, era un periodista, un vulgarizador, de un estilo claro, limpio y conciso. Un hombre sincero, que amaba las ideas y pensaba poco en sí mismo... Los hombres probos, honrados, que no piensan más que en su conciencia, no pueden prosperar en la política, ni son útiles, ni sirven para nada».

Zertan gelditzen dira orduan, euskaldun zintzo jatorrok? Hau baino herri politagorik ba al da ba gaztetan?... Edo jubilatutakoan?... Beno, igoyal dio. Nik

nahi nuen hitza «*vulgarizador*» horixe zen. Horixe da euskaldunari bete betean datorkiona. Batez ere donostiarrari. Eta, euskal merkatua, badakigu ez dela besterik.

S.S. VULGARIZADOR:

Baiona edo Bilbo, Bruselas edo New Yorck, guretzako dena Donosti. Eta nola bulgarizatzen dugun segituan, inguruan sortzen den eder pizar guzia! Zeinen txukun! Zeinen fin! Zeinen xuri! Eta nolako jator itxuran gainera. Eta ostia, nolako nazka ematen duen! Hor hasten da neretzako bidagurutzea. Hor bereizten adin klaseak:

«No me es simpático San Sebastián por muchas razones. No han sabido hacer nada serio y noble; por todos lados se ven unos hotelitos ramplones y pretenciosos. Allí donde los donostiarras, en colaboración con los madrileños, ponen la mano, se levanta una cosa fea; ya han afeado el monte Igeldo; ahora están afeando el Castillo, mañana llegaran a afean el mar, el cielo y el aire».

Egia. Neretzako, Donostiak duen gauzarik itsusiena: airea. Eta Pionen moduko espainolentzat baino gehiago azken euskaldun pizarrontzako. Euskal Herriko lau hegaletan sortzen den on pizar guzia, *vulgarizatu*, (bai, hori da hitz egokia, *dibulgatu* baino askoz aproposagoa) hondatu eta merkatu ergelera hustu besterik egiten ez dakite, eta halere iruditzen zaie, inork deus ez duela ikusi munduan haiek baino lehenago eta hobekiago:

«A pesar de todo el rastacuerismo, de toda la quincalla, de todo el jesuitismo y todo el mal gusto que tiene, San Sabastian ha de llegar a ser, dentro de unos años, un pueblo importante y serio. Entonces el escritor que nazca alla no querrá ser de un pueblo cualquiera perdido entre montes. Yo sí lo prefiero. Yo no tengo ciudad».

Aspaldi etorria da eguna. Gipuzkoa inguruko edozein herrixkatakako euskaldunak, «*Donostian bizi naiz*» esanen baitizu, halako balio erantsi batekin. Handik aurrera akabo. Ez dizu deus aditu beharrik, deus ikasi beharrik. Munduko eder guzia bere gerrian jiraka dabilkiola uste baitizu. Eta urrutitik sumatzen da, betirako pozoitutako jendaje hori: «*abvenedizos y rastacueros con ansia de brillar*». Bai ederki esana, Piok neretzako, eta Euskal Herri osoarentzako.

ETA IRUÑEKO BIBOLIÑA?...

«Así como la mayoría de los aficionados a la pintura y escultura son charileros y judíos disfrazados, los aficionados a la música son, en su mayoría, gente un poco vil, envidiosa, amargados y sometidos».

Idazlerik ez du sartzen pozoizorro horretan. Inor baino lehenago sarrezakeen, ordea, bere burua. Hitzak bestek ez baitu balio mendeku egiteko. Ekintzak huts egitean, noski. Musikarekin, ordea, ezin liteke negar besterik

egin. Eta pinturarekin edo eskulturarekin ezta horixe ere. Eta mendekua, arnasa bezain beharrezko dizu gizonak. Ez dugu beste eskolarik:

«En Pamplona había una mezcla de brutalidad y refinamiento verdaderamente absurda. Un pueblo rudo y fanático olvidaba una fiesta de sangre para aclamar a un violinista. ¡Y que violinista! Uno de los hombres mas amadados y grotescos del mundo. Lo estoy viendo pasear, con sus melenas, su trasero redondo y unos zapatos de taconcitos de a cuarta, que le daban el aire de una cocinera gorda».

Esan dut musikak ez duela balio mendekurako, baina bai negar egiteko. Eta negar egiten dakienak, «*mamatu*» ere egiten omen du jeneralean. Eta pentsa, Sarasatek, bere garairik hoberenean?... Nola eraman ordea Piok, gozamen beteko arrakasta gaitz hura? Barren barrendik, esanen balu bezala: «*ez duk erreza baina, ni baino marigixonagoa duk hori, eta begira ze arrakasta emakumekin eta mundu guziarekin*». Eta zertarako, eta gero haren kutsu erromantikoa gorestek:

«La musica debe ser de donde nace. La cancion popular lleva como el olor del pais en que uno ha nacido; recuerda el aire y la temperatura que se ha respirado; es todos los antepasados que se le presentan a uno de pronto. si no pudiera haber más música que la universal o la local, yo preferiría ésta: la popular».

Baita nik ere. Aurren aurreneko musika, kanta baita. Bizia bera ez al da ba, oraindik inork ulertzen ez duen kanta? Eta aze ergelkeria, musika sorreran dantza izan zelako hori! Ez, kanta ez da dantza. Deus bada, melodia da kanta. Eta funtsean kanta da musika ere. Eta kanta nonbaitekoa izan ohi da sortzez, gero nonahiko egiten bada ere. Gero geroakoak, eta dena matematika delako txorakeriak.

DITXOSOZKO ESTILOA:

Gaurkoa, atzokoa, betikoa... Gehienak libertitzen diren lekuan, bat edo beste aspertu egiten. Eta isilik ezin egon inor. Esan egin behar zerbait, isilak akatuko ez bagaitu:

... «detras de esta corrección se adivina el optimismo de los eunucos».

Eta lehen esan dizut, buhame anarko usteko gazteok, are nazkanteago egiten zaizkidala:

«Aun podemos pasar por la estupidez y la incomprensión cuando son sencillas y naturales; pero ¿qué decir de la incomprension adornada y retórica? ¿Hay nada más desagradable?»

Sekula ez dut ezagutu apaindura gabeko ergelkeriarik. Gutxi gehio, denek badute berena. Izan ere, ergelkeria, krudelkeria baizik ez baita funtsean. Inork ezagutu al du, esate bateko, egungo gizartea baino ergelagorik eta krudelago-

rik? Orduero *notiziak* aditzea aski. Baina, beti izaten da itxaropenen bat, dena okerrago bihurtzeko:

«Yo tengo una esperanza, la de que el lector de dentro de treinta o cuarenta años, que tenga una sensibilidad menos amanerada que el de hoy, me apreciará más y me desdenara más».

Horretan saiatu naiz ni, eta ez deus bestegatik, niri ere gauza berbera gustatuko litzaidakelako baizik. Eta berriro, adinen bidagurutzera iritsi gara. On izateko indarririk ez dutenen, eta beste bakan horien artekora. Baina, oroi-menak, beti atzera eta aurrera, huts haundiak egiten ditu. Horixe da nik eza-gutu dudan putarik haundiena: Oroimena.

OROIMEN KAPRITXOSA:

Inork ez daki oraindik zer den ere. Erotuak gauzkala, horixe bakarrik. Nola jakin, nork, zenbat oroitu behar duen batek, edo zenbat ahaztu, ez erotzeko? Eta zenbat ero klase ote da munduan, nitaz aparte? Eta nolako oroimen tipoa behar ote da gizon normala izateko?...

...Yo no he sabido lo que quería decir pretérito hasta años después de acabar la carrera; así he repetido varias veces pretérito perfecto o imperfecto, sin saber que pretérito quería decir pasado, muy pasado en uno y menos pasado en otro.

Ni oraindik okerrago naiz. Baditut ehunka hitz, batez ere espainolekoak, behin eta berriz hiztegian begiratu, eta oraindik buruan tentuz hartu gabekoak. Esate bateko, *prolegómeno*, *lontananza*, *execrar*, *locuaz*... maiz adituak, buruz ikusiak, ikusiak, idatzi ere oraintxe egin ditut, baina, ez galdetu zer esanahi duten. Ezin sartu kaskoan! Marka da gero, eh!... Ez badiot gorputza ikusten: ilea, lepoa, titiak erdizka, begiak, irria, ahoa, belarriak... izterrak, belaanak, txurmioa, pausera... ezin gogoan hartu hitzik! Neretzako hitzak, neskatxa seduktorak dira: gutxieneko irudipen sentsual baten oroipen bixirik gorde ez badut, akabo, ezin jaso buruan:

...Es probable que yo haya sido hombre de un desarrollo espiritual lento. Como memoria he tenido siempre poca. Afición al estudio ninguna. La historia Sagrada y las demás historias no me gustaron nada. Únicamente me gustó un poco la geometría y la física.

Honetan ere bat nator Piorekin. Hagitz mutiko lojikoa naiz. Artikulu hauxe bera lekuko. Baina, inolako arrazoi edo sentipenik gabe ikasi behartako gauzak, begien bistako bizitzari lotu gabekoak, ezta buruan mailuarekin joka ere. Nere literatura guzia bizitzari lotua dago. Sentitu ez badut, ezin asmatu. Buru guzia dizut bihoztuna:

«El hombre actual ha visto que porque un hombre lleve galones o una sotana negra o escriba frases bonitas en renglones cortos, no vale más que él, El hombre de hoy no quiere magos, ni hierofantes, ni misterios. El mismo puede

ser, cuando le conviene, cura, militar o poeta. No necesita especialistas en valor, en moral, ni en sentimentalidad. Lo único que necesita son hombres sabios y hombres buenos».

Eta ni, ez al naiz hala? Ez dakit. Nere ilusio bakarra, horixe da. Munduko haurrik argiena eta onena izatea. Baina, nere ohaideak, senideak, lagunak, muganteak edo dena delakoak ni larrutu, hankapetu, akatu, sutu, kizkali eta erraustu gabe zenbat denbora pasa lezake?... Eta ze adinetan bizi ote da, halakorik egiteko kapaz ez dena?... Pozik ikasiko nuke. Edozein modutan ere, Pio baino puskaz zaharragoan. Hasieran esandakora bihurtuko naiz:

«Nadie merece ser alabado por su bondad, si no tiene la fuerza de ser malo».

Hementxe hasi zen dena. Hementxe bukatu da dena. Pio eta Ortega, Eduardo eta Miguel, Benardo eta Koldo, Xabier eta Patziku, bigagurutze horrexetan berotu dira. Eta horra gure eder guzia sutan. Eta ez dadila itzali, hil arte guzian ni.

BUKAERA ZINTZO BETI

Koartila mordoska batekin postariagana doa Pio. Letra larritan «JUVEN-TUD, EGOLATRIA» besterik ez dio azalak. Zer esan nahi du horrekin: inoiz gaztetasunik bizi izan ez delako, sekula baino gazteago eta egoistago sentitzen dela?... Heldutasuna delako fikzio hori are zikoitzagoa dela ez bageneki bezala...

«Siento la impresión, al asomarme a la vejez, de que toco con el pie un suelo más firme que en la juventud. Ahora comenzará en el cerebro la involución y vendrá la limitación automática del horizonte mental. Está uno en lo alto de la cuesta de la vida, y cuando se empieza a bajar aceleradamente sabe uno mucho, tanto que sabe uno que no hay nadie que sepa nada».

Badirudi gaztetako eginbehar larri haietatik libratuxe dela gure gizona. Badirudi hitz xuriak ez diola deustako balio izan, ekintzaren su gorria behar beharrezko izan duenean. Eta orain, heldutasun zuhurrean, buruak mugatuko omen dio gorputza. Gaztetasun ezinduan hala egin ez balio bezala. Alegia: onartu egin duela haragiaren derrota, etsi etsian. Ez?... Eta gainera, nahi luke inork ez dezan zalantzan ipini bere hizketa fina:

«-No es sincero lo que has escrito aquí? Si lo es, ¿qué importan los comentarios?»

Nork berak kristo guziagatik esaten duena, beste askok beragatik esanen duen bildur. Bai errukarria dela gizona. Eta, *ondra, egia, zintzotasuna...*, zeinen gauza astunak asmatu dituen! Eta asmatzea aski ez, uka eta uka, mundu guziari sinetsarazi nahi:

«Lo del entusiasmo de Baroja por la verdad es, de verdad, una matracada. ¡Qué le va a entusiasmar la verdad! Aun no a entusiasmado a nadie. Quien

escribe adopta un personaje; hace de alguien. No sólo el célebre fingidor pesoano o el que emborriona un mazo de cuartillas en primera persona, también el que redacta una sentencia, evacúa una tesis sin intromisiones subjetivas, echa un bando, propone una enmienda transaccional, suplica una gracia al ayuntamiento, desgrana un endecasílabo, reseña un poemario, resume un consejo de ministros, engrasa un dietario, traduce a Sulustio, despacha notas de agencia, dice que piensa, adoba un discurso, firma una factura, recurre a una instancia superior, da fe, declara la renta, entrevista al laureado, solicita amores, trasluce desolación o se despide del mundo cruel. Todo el que escribe imposta, hace de alguien. Escribir es histriónico. Para eso se inventó ... Quien quiere decir algo de veras, se embrolla y no lo consigue».

Neronek frogatua. Eta nozitu ere ez gutxitan. Bai bai, pasarte hauxe neukan nik jaso, Pio zela eta, Eduardok esana, zuri erregalatzeko. Zu ez dakit. Ni sendatu egiten nau. Erremediorik ez duten gaitzetatik ere sendatu. Egiak ere sendatzen baitu gizona. Indarra behar, hobea izateko.

Y LA NADA VALÍA TODO:

Eta begira dena, buruileko goiz nabar honetan... Belar motxeko soro berde hori, tarteka karari urdinsken ingurutan abuztuko agorteak horixkatua. Eta lizar zahar barrenuts horiek, nolako indarra, azal hutsean!... Eta Pelloren oilarra kukurrukuka, hark deitu arte eguzkia aterako ez dela seko sinestua. Eta hirulau etxe haruntzaxeago, kehe urdina dariela, haizearen osasuna erakusten. Eta Gorritzaran erreka, amon sorgindua iduri, marmarian. Gaueko isiltasunean zerbait entenitzen nion, egunargiz jatik ere ez. Eta zeinen errukarriak, leihoko eltxo horiek, argi bila hasiak, horren goiz!...

Hau ote da bizia?... Ez dakit. Pio benpe ez da ageri:

...«Cuando voy a la orilla del mar, las olas que se agitan a mis pies murmuran: Baroja, tú no serás nunca nada. La lechuza sabia, que por las noches suele venir al tejado de Itzea, me dice: Baroja, tú no serás nunca nada, y hasta los cuervos que cruzan el cielo suelen gritarme desde arriba: Baroja, tú no serás nunca nada... Y yo estoy convencido de que no seré nunca nada.

Horra Piok maizenik idatzi duen esaldia. Oroitzen Cesar o nada delako hartaz? Bai salataria sententzia!... «Baroja, tu no serás nunca nada». Eskerrak sekulan izan ez diren gauzak diren ederrenak jendearentzako. Inoiz izan gabeko haur horientzako!...

